



BERROBIKO UDALA

Kaixo, berrobitarrok:

Dakizuen moduan, 2025. urtean hondakin organikoen autokudeaketarako apustua egin genuen; Mankomunitatearen bidez kudeatu beharrean, herriak berak kudeatzen du, eraginkorragoa eta merkeagoa baita.

Guzti honen harira, gainontzeko zaborren joera aztertu da, horretarako karakterizazio batzuk eginaz.

Abenduko datuen faltan, Mankomunitateak Berrobin kudeatzen dituen zabor guztien %17,28 errefuxa da. Datu honek ez du asko esaten, bere konposizioa da aztertu beharrekoa eta datuak ez dira onak. Errefuxaren edukiontzian bildu denaren %51,24 da soilik errefuxa, beste %34,93 materia organikoa da eta gainontzekoa ontzi arinak dira. Honek guztiak, beste ondorio bat dakar: Mankomunitateak, errefuxa tona bakoitzeko tasa oinarri bat ezartzen du eta horren arabera saritu edo zigortu egiten du herri bakoitzeko tasa. Beraz, 2025eko emaitzen arabera, 2026an %10 gehiago ordaindu beharko dugu berrobitarrok. Gainera, %34,93 hori %35era pasako balitz, hurrengo ponderazio mailan sartuko ginateke.

Honengatik guztiatik eta baita gure ingurumenagatik herritar guztiok zabor bilketa egoki bat egin behar dugu.

Como sabéis, en 2025 volvimos a apostar por la autogestión de los residuos orgánicos. Gestionarlo desde el pueblo es más eficiente y barato que a través de la mancomunidad.


Durante este año se ha realizado una caracterización de los residuos, papel, envases, vidrio y resto. A falta de los datos de diciembre de 2025, el 17,28% de los residuos corresponden a la fracción de "resto" (contenedor gris). Analizando la composición de la misma, se observa una cantidad importante de residuos revalorizables.

Sólo el 51,24% de lo recogido en el contenedor gris es "resto". El 34,93% es materia orgánica y el resto envases ligeros. La consecuencia directa de este desvío es la penalización económica, tendremos que pagar un 10% más a la mancomunidad por la tasa de impurezas de la fracción de resto. Estamos en el límite de del nivel de ponderación y si superamos el 35% de desvío la penalización aumentara a un %20.

Por eso os animamos a todos a que pongáis más atención en esta fracción de residuos.



BERROBIKO UDALA



	Organikoaren portzentaia	Ponderazioa	Tratamentu kostea, 7/22 legeak ezarritako zerga barne
Errefusaren karakterizazioa	>40 %	1,35	314,064
	35-40 %	1,20	279,168
	25-35 %	1,10	255,904
	15-25 %	oinarria	232,64
	<15 %	oinarria	232,64